


Bibollo



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA



PAULA ESTÉVEZ

Pasa den apirilaren 26an, Ikusgarritasun Lesbikoaren Egunean, hitzaldi bat eman nuen unibertsitate baten enkarguz. Kostatu zitzaidan baietza ematea. Hasteko, onartu nuen lesbiana hutsa, osoa, totala (ikus ezazue *Nola esan/izan bollera euskaraz* proiektua) ez naizenez, iruzurtiaren sindromea sentitzen dudala lesbiana erreferentetzat hartzen nautenean.

Maiatzaren 17an, LGTBIfobiaren kontrako nazioarteko egunean, Cris Lizarragari (Belako musika taldeko kideari) elkarrizketa egin diot dokumental baterako, azken boladan bisexualitatearen ikusgarritasuna sustatzen dabilelako, eta berarekin hitz egiteak sentipen hori ulertzeko gakoak eman dizkit.

Gure ibilbidea berdintsua da: erreferente eta aukera faltaren erruz, heteronormari hazi zen, mutil-lagunekin esperientzia latzak bizi izan zituen, eta harreman lesbikoak izaten hasi zenean, bollera identitatearen aldeko hautu politikoa egin zuen. Haatik, *Pikara Magazine*-n La Psicowoman sexu hezitzaileak Elisa Coll ekintzaile bisexualari egin zion elkarrizketa entzun zuenean konturatu zen lesbianismo politikoak nik aipatutako iruzurtiaren sindromean kateatzen zuela. Collen diskurtsoari esker, bisexualitateak LGTBI mugimen-

duaren baitan jasotzen duen epaia (ez dela disidentea, binarista dela*, bifobia ez dela existitzen...) deseraiki zuen.

Orduan, bere bisexualitatea onartzearekin batera egundoko lasaitasuna hartu zuen: “Nire iraganarekin bakeak egitea suposatu du, baita nire etorkizunarekin ere”. Esaldi horrek zart egin dit. Batzuetan nire burua ikusi dut koherentzia biografiko bat behartu nahian. Hau da, nolabait ukatu edo ezkatutu izan dut bizi izan dudala maitasuna, bizi izan dudala desira, bizi izan dudala plazerra gizonekin. Benetazkoa izan dela, eta ez alienazio edo inposizio heteropatriarkalaren ondorioa, matxismoak askotan hori guztia zapuztu badu ere.

Etorkizunari erreferentzia bereziki interesgarria egin zait. Zineman (*The kids are all right, La Vie d'Adèle...*) eta telesailtan (*The L Word, Orange is the new black*) etengabe indartzen da jendartearen emakume bisexualak duten-dugun estigma: aldakorrak, promiskuoak eta desleialak garela. Lehenago edo geroago itzuliko garela heterosexuallitateara, eta goi-mailako traizioa izango dela gure ingurukoentzat. Narratiba matxista hori lesbiana politikoentzat mamu bihurtzen da eta lesbiana osoen autoestimua ere kaltetzen du.

Elisa Collekin *Resistencia bisexual* liburuan aipatzen du, halaber, bisexualita-

tea dela LGTB siglen artean komunitaterik ez duen bakarra. Babesgabetasun horrek osasun emozionala kaltetzen du eta identitate hori harrotasunez bizitzeko beste oztopo bat da.

Bisexuala izateak dakar, gizarte bifobo honetan, etengabeko identitate krisiak bizitzea. Collekin Lizarragari nola, Belakoko musikariak enegarrena eragin dit niri. Deserosotasuna piztu dit ohartzeak barne bifobia horrek eragina izan duela nire burua ulertzeko eta gizarteratzeko prozesuan.

Eta hala ere, bollera ere banaiz, bollera bizi naiz, lesbofobia bizi dut, kultura lesbikoa maite dut.

Agian aldakorra izatea ez da akatsa baizik eta bertutea.

Agian arraina/okela dikotomia hutsala baino aberatsagoa da gure sexualitatea.

Agian ez dugu bata ala bestea aukuratu behar.

Agian “Bollera da bide bakarra” aldarrikatu dezakegu, ahaztu gabe bidezidorrak ederrak direla.

Agian izan gaitzke bibollo.

*Pansexual proposatu da bisexual binarista delakoan, baina Elisa Collen arabera bisexualaren definizio egokia da zure generoa eta beste generoak gustoko izatea. ●